

Agintaldiko lehen Kultura Mahaia bilduko da ostegun honetan, Kultura Loratzen prozesuko ondorioak lantzen hasteko

- **KL prozesuan irtendako kezka eta gakoak landuko ditu, besteak beste, Kultura mahaiak; herriko eragileek, elkarteek, taldeek eta norbanakoek osatuko dute**

Andoainen, 24-05-21.- Pasa den urteko azaroarekin batera ariketa kolektibo bat abiatu zuen Andoaingo Udalak herriko kultur eragileekin batera: Kultura Loratzen deitu zen prozesua, eta hausnarketarako, eztabaidarako eta proposamenak biltzeko foro bat izan zen. Hiru saiotan zehar, helburu izan zuten egoeraren inguruko irakurketa partekatua gauzatzea eta etorkizunean gure herriko kultura arloko bide orria zein izan beharko lukeen marraztea.

Bilkura emankorrak izan ziren oso, kezkak, ezinegonak, indarguneak azaldu ziren, eta orain, horiek guztiak mamitu eta aurrera begirako perspektiban jarri nahi ditu Udalak. Ondorio aipagarrien artean irtendakoak dira ondorengoak:

-Kultura Mahaia eratzearen beharra, herriko eragile, elkarte, talde eta norbanakoak batuko dituen eta elkarlanaren bidetik, herriko kultur arloaren inguruko hausnarketak partekatzeko balioko duena.

-Herriko egutegi bateratua sortzearen beharra

-Tramite administratiboetan herriko eragileei sostengu eta laguntza eskainiko dien laguntza teknikoa

Bada, horiek guztiei bide ematen hasteko, agintaldi honetako lehen Kultura Mahaia ospatuko da ostegun honetan, hilaren 23an; prozesuan irtendako kezka eta gakoak lantzen hastea izango du egiteko nagusia mahai horrek. Herriko eragileek, elkarteek, taldeek eta norbanakoek osatuko dute Mahaia. Bertan zehaztuko dute mahaiaren osaera, maiztasuna, etab.

Udal gobernuak agindu zuen elkarlanaren bidea baliatuko zuela herriko kezka, gogo eta nahiei aterabidea emateko; bada, Kultura Mahai honen berrabiaratzea ildo horretan kokatu behar den ekimena da.

